



Ingurumena

Iruñeko Udala orain dela urte askotatik hona ari da ekintza asko garatzen garapen iraunkorraren alde, horrekin konprometitua baitago. Horretarako, beste jarduera batzuen artean, hainbat organismoan parte hartzen du, hala nola NELS Sarean (2011), Klimaren aldeko Hirien Espainiako Sarean (2007), EnerAgen Sarean (2003) eta Energy Cities ekimenean (1999).

Iraunkortasun Alorra

Udaleko Energia Agentzia

1998an sortu zenetik, Udaleko Energia Agentziak neurriak eta ekintzak sustatzen ditu energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko. Era berean, lanean dihardu hiria energia berriztagarrien sustapenean engeiatzeko.

Energia berriztagarrien instalazioak

Ikastetxe Fotovoltaikoen Sarea 21 ikastetxe publikoz osatua zegoen 2013an; beraz, ezaugarri horietako hiru ikastetxe bakarrik falta dira sarean sartzeko: San Frantzisko IP (non ezinezkoa baita, eraikin katalogatua delako), Bernat Etxepare IP eta Doña Mayor IP. Sareko ikastetxeez gain, Ingurumen Heziketarako Museoa, Antso Abarka plazako pergola, Gaztediaren Etxea eta Sanduzelaiko Hiria ere sarturik daude. Iaz, instalatutako potentzia 192,25 Kwp izan zen, eta 210.268 Kwp-eko ekoizpena lortu zen; horrek 56.237 euroko diru-sarrerak eragin zizkion Udalari, BEZa barne.

Udalak, gainera, 14 **eguzki-instalazio termiko** kudeatzen ditu kiroldegi, ikastetxe publiko eta abarren artean; bi instalazio **geotermiko** (Piraguismo Eskola/Caparrosoren Errota eta Milagrosa Haur Eskola) eta lau **biomasa**-instalazio. Berriztagarrien teknologiarik berriena, hirian 2009an paratzen hasitakoa, energia **minieolikotik** datorren elektrizitatea da. Horrelako instalazioa Sanduzelaiko Kirol Hirian jarria dago.

2013an, arlo honetako hezkuntza- eta sentsibilizazio-politikaren baitan, bi **bisita gidatu** egin ziren instalazio berrietara, eta guztira 45 lagun joan ziren.


Ikasleendako prestakuntza

2001. urteaz geroztik ari da egiten **Energia aurkitu eta konta ezazu** Udalaren hezkuntza-programa, energia zentzuz erabiltzeko. Programak helburu du Lehen eta Bigarren hezkuntzako ikasleak sentsibilizatzea energiaren neurrigabeko kontsumoaz eta, era berean, norberarengan energia aurreztera eta iraunkortasunera bideratutako portaerak sustatzea. Iaz, lantegi gehiago

eskaini ziren bi zikloetan eta www.descubrelaenergiaycuentalo.com bloga zabaldu zen.

2012-2013ko ikasturtean, **parte-hartzaile kopurua % 33 hazi zen**, aurreko ikasturtearen aldean. 3.553 ikaslek parte hartu zuten (Lehen Hezkuntzako 25 ikastetxetako 2.292k eta Bigarren Hezkuntzako 12 ikastetxetako 1.261 ikaslek). Zikloka, Lehen Hezkuntzako lantegien % 75 gaztelaniaz eman ziren; DBHn, berriz, % 67.

Eskola-programako parte-hartzaile kopuruaren bilakaera 2009-2013ko aldian.



Programan parte hartutakoen artean, **Lehen Hezkuntzarako III. Marrazki Lehiaketa** egin zen, eta **Bigarren Hezkuntzarako II. Argazki Lehiaketa**. Hona hemen irabazleak: Gloria Fernández García, San Ignacio-Jesuitas ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 5. mailakoa, eta Nerea Madoz Muruzábal, Iturrama BHIko DBHko 4. mailakoa, hurrenez hurren. Bi lehiaketen xedea da ikasleak sustatzea beren eguneroko bizitzan energiari baliatzeke hainbat jardunbide egoki eskura dezaten.

Eraikinak eta energia

Ikastetxeetako *Eskola Eraginkorrak* auditoria-programaz gain, Iruñeko Udalak **DISPLAY programa** bultzatzen du, Udalaren 20 eraikinetako ur- eta energia-kontsumoak monitorizatzeko, eta erabiltzaileei aurrerapenen berri emateko. 2013an, *Energy Cities* ekimeneko kartela birdiseinatu zen, *Renovate Europe Day* jardunaldian ikusgai jarri zena.

Eraikinen eraginkortasun-ziurtagirietarako prozedura ezarri duen 235/2013 Errege Dekretua onetsi ondotik –zeina derrigorrezkoa izanen baita alokairu eta salmentetan oro har, eta 500 m²-tik gorako eraikin publikoetan– Energia Agentziak hainbat eraikin ziurtatu zituen: Yamaguchiko Liburutegi Publikoa, Civivox Iturrama zentroa, Arantzadiko igerilekuak, San Pedro Multzoko 52 etxebizitza eta Santa Luzia pasealekua, eta gainera, Udaletxeko ziurtapena ere hasi zuen.

Era berean, **energia-erabilera hobetzeko azterlanak** egin ziren eraikin osoetan edo eraikin

batzuen zati batzuetan; besteak beste, Bainuetxean eta Zapateria 4ko eraikinean (non, gainera, energia zentzuz erabiltzeko neurriak hartu baitziren), lau haur-eskoletan, Aquavox Iturrama zentroan, Arantzadiko igerilekuetan eta Civivox Iturrama zentroan. Era berean, Vázquez de Mella Ikastetxe Publikoko azterlana eguneratu zen eta ikastetxe horretako fluoreszente guztiak aldatu ziren.

Auto elektrikoa

Auto elektrikoa hirian ezartzeari dagokionez, berotegi-efektua eta zarata-eragozpenak eragiten dituzten gasen isuriak ahalik eta gehien murrizte aldera, 2013an, ibilgailu elektrikoak **kargatzeko bost guneen sarea** mantendu zen (San Ignazio kalean, Orreaga etorbidearekiko bidegurutzean; Blas de la Serna kalean; bi Ezkirotz kalean, bat Antso Azkarra etorbidearekiko bidegurutzean, eta bestea Ermitagañako merkatuan, Arcadio Maria Larraona kalearen ondoan). Iaz, guztira, 55 **ibilgailu elektrikoak ziharduten** Iruñean eta, aurreko urtean berriz, 47.

Urtean zehar, **ibilgailu elektrikoak alokatzeko baseak** bitik laura bikoiztu ziren hirian, bat Navas de Tolosa kaleko 5ean ireki baitzen, eta bestea tren-geltokiaren aparkalekuaren ondoan (beste biak Merindade plazan eta Pio XII.aren etorbideko 45ean daude). **129 lagun**

www.carsharingnavarra.com **zerbitzuan erregistratu ziren** (hau da, 2012an baino % 35,7 gehiago). Carsharing Navarrak 1.189 ordu erreserbatu zituen ibilgailu elektrikoan aritzeko, eta batez beste, erreserba bakoitzeko, 22 kilometro egin ziren.

Iaz, **ICT4VEU** europar proiektua mantendu zen, ibilgailu elektrikoaren inguruan IKTak garatzen saiatzeko, Iruñeko eta Gasteizko kargaguneen kudeatzaileen arteko jardungarritasuna xede hartuta. European hiru proiektu pilotu dira; Iruñekoa –Espainiaren ordezkartizan–, Erresuma Batukoa eta Austria-Esloveniakoa.

Informazioa eta aholkularitza

Energia Agentziak argibideak eta aholkuak ematen dizkie herritarrei, eta sentsibilizatu egiten ditu, energia-eraginkortasunari eta energi berriztagarriei lotutako arloetan. 2013an, eguneratu egin zen eskuragarri dagoen material inprimatua. Gainera, **kontsulta gehiago** izan zen; hau da, aurreko urteetako beheranzko joera gainditu eta azken bost urte honetako kopururik handienara iritsi zen. Kontsulten % 70 Carsharing-zerbitzuak eta eraikinen energia-ziurtapenak eragin zuten.

	2009	2010	2011	2012	2013
Guztira	144	134	92	87	153

Zerbitzuaren webguneak 100.385 bisita jaso zituen 2013an; hau da, 2012an baino % 290 gehiago.

Iruña **Hiri Adimentsuen Espainiako Sareko (RECI)** kide da. Udaleko Energia Agentziak, Udal Gerentziarekin elkarlanean, era aktiboan parte hartzen du sektorekako hainbat lan-taldetan. Sareak lanean dihardu Smart Cities edo Hiri Adimentsuak lortzeko, non teknologia berrien erabilera bideratu eta zabaltzeko baita herritarren artean, herritarren eta kudeatzaileen arteko harremanak eraginkortasunez eta eragingarritasunez bideratzeko, betiere berrikuntza, kudeaketaren hobekuntza eta herritarren bizi-kalitatea igotzea kontuan harturik.

Alde horretatik, Ingurumen Alorrak eta Udal Gerentziak **Nire hiri adimentsua** proiektuaren garapenean ere lan egin zuten. Ekimen hori Espainiako 30 hiritara iritsi zen maiatzean eta ekainean; besteak beste, Iruñera. 2013an, **Iruña Smart City Estrategia** aurkeztu eta **SmartPamplona** erabiltzailea sortu zen Twitterren, udal-lanak arlo horretan darabilen komunikazio-bide baten gisara.

Beste batzuk

Urtero bezala, Ingurumen Alorrak **Europako Mugikortasun Asteari** lotutako jarduerak antolatu zituen irailean (bizikleta-bideak eta oinezkoendako bideak, antzerkia, ibilgailu elektrikoen erakusketa, jolasak, bizikletak aztertzeko lantegia, etab.). Gainera, aurreko urteetan bezala, Energia Agentziak **mahai-egutegi** bat argitaratu zuen, eta hor energia eraginkortasunez erabiltzeko aholkuak ematen zituen. Era berean, **jardunaldietan**, **foro espezializatu**etan eta abarretan parte hartu zuen.

Agenda 21

Agenda 21 Nazio Batuen programa bat da, garapen iraunkorra lortzeko, *hau da*, egungo belaunaldien beharrak asetzen dituen garapena lortzeko, baina etorkizuneko belaunaldiak beren beharrei erantzuteko ahalmena kolokan jarri gabe. Horri lotutako jardueren artean, 2013an zerbitzuak Iruñeko Agenda 21eko **II. Ekintza Planaren** (2011n onetsitakoa) gauzapean-egoera aztertu zuen. Planean diseinatutako 176 ekintzetatik, % 22 gauzatu dira eta % 67 gauzatzen ari dira (oro har, tankera jarraitua duten ekintzak dira). **Agenda 21 Foroa** arduratzen da jarraipena egiteaz. 2000n sortua, 59 entitate daude ordezkaturik. Azterketa hiru bileretan egin zen, hirurak ere urrian egindakoak.

Iruñeko Tokiko Agenda 21ek, proposamenak aztertu eta diseinatzean, **21 iraunkortasun-adierazleren** sistema bat darama lotuta —adierazleak sozialak, ekonomikoak ingurumenekoak eta instituzionalak dira—, eta datuak urtean zehar eguneratzen dira. Gainera, Agenda Iruñeak 2009an **Alkateen Ituna** sinatzeagatik bere gain hartu zituen konpromisoez arduratzen da. Ituna Europako Batzordearen ekimena da, tokiko gobernuei zuzendutakoa, eta, haren bidez, konpromisoa hartzen dute CO₂-aren eta berotegi-efektuko gasen isurpenak % 20 murrizteko eta hiriko energia kontsumo osoaren % 20 iturri berriztagarrietatik lortzeko. 2011tik 2013ra, erabat burutu ziren edo gauzatzen ari ziren epe laburrera ezarritako neurrien % 93 (46tik 43).

Zerbitzuak, gainera, **nazioarteko ospakizunetan** parte hartzen du, hainbat jarduera antolatuz, adibidez, Ingurumenaren Nazioarteko Egunean (ekainak 5). Zerbitzuko teknikariek, bestalde, hainbat profiletako jardunaldi eta ikastaroetan parte hartzen dute, Iraunkortasunaren aldeko Toki Entitateen Nafarroako Sarearen edo CRANAREN saioetan, kasu.

Ingurumen Heziketarako Museoa

Ingurumen Heziketarako Museoa (Errotazar kalea, zk.g.) Iruñeko Udalaren ingurumen-arloko hezkuntza-eta sentsibilizazio-baliabide nagusia da eta, iazko apirilean, hamar urte bete zituen. Hori dela eta, berriazko programazio-aste bat antolatu zen. 2013an, **ordutegi- eta egutegi-sistema berria finkatu zen**. 2012ko erdialdetik, Museoa itxita dago asteburuetan eta uztailean, eta asteguneko arratsaldeetan ordu erdi lehenago ixten da. Ordutegi osoko azken urtearekin alderatuta (2011), 2013an bisitariak % 25 gehiago izan ziren. Bisitari gehiago izan zenez, eta zentzuzko irekiera-ordutegiari esker, udal-ekipamendu honen kudeaketa-kostua % 73 apalagoa izan zen erabiltzaile bakoitzeko.

Museoak, iaz, **9.899 bisitari** hartu zituen; 2012an 9.429 izan zirenez, igoera % 5koa izan zen. Inauguratu zenetik, guztira 71.823 bisitari izan ditu. 2013ko bisitari guztietatik, % 37,5 ikasle taldeak izan ziren; % 52,5, berriz, bestelako talde antolatuak, eta % 10, azkenik, partikularrak, hau da, bilduma iraunkorra edo aldi baterako erakusketak beren kasa bisitatzen dituzten pertsonak. 2012ren aldean, 7 puntutan egin zuten gora bestelako taldeetako bisitarien, ikasle taldeekin alderatuta.

Urteroko bisitari-kopuruen taula bisitari moten arabera

URTEA	BISITARI KOPURUA			GUZTIRA
	Partikularrak	Ikasleak	Beste Talde batzuk	
2009	752	3.610	3.116	7.478
2010	637	4.367	3.383	8.387
2011	694	4.371	2.880	7.945
2012	1.037	4.104	4.288	9.429
2013	988	3.716	5.195	9.899

Iraunkortasunaren aldeko Heziketa programa derrigorrezko eta bestelako hezkuntza-maila guztietako ikasleei zuzendua da, eta 2013-2014ko ikasturtean jarduera gehiago eskaini zituen, zehazki 22tik 30era igo baitzen eskaintza. Urte naturaleko eskola-kanpaina 3.716 ikaslerengana iritsi zen (2012an, berriz, 4.104 izan ziren). Taldeak, nolanahi ere, 165etik 171ra hazi ziren.


Adingabeentzat ere, Museoak 2013an **oporraldietarako lantegiak** eskaini zituen, Erregetako astean, Aste Santuan, udan eta Eguberrietan. Guztira, 31 jarduera egin ziren, hala nola jinkanak, merkatu txikiak, lantegi praktikoak..., 1.006 parte-hartzaileekin; hau da, 2012an baino % 9 gehiago. Zenbaki horietan sarturik daude udako bisitarien talde antolatuak, gehienbat kanpamenduak eta ludotekak izaten baitira.

Helduek beren berriazko zabalkunde-programak dituzte, eta guztiak **Iraunkortasunaren Ikasgela** izenburupean bilduta daude. 2013an, 2012ko urrian ezarritako aldaketak finkatu ziren, eta urteko asteazken gehienetan jarduerak antolatu ziren. Zehazki, 99 jarduera egin ziren –2012an baino % 77

gehiago—, eta guztira 2.963 parte-hartzaile bildu zituzten, hau da, aurreko urtean baino % 43 gehiago, eta 2011n baino % 90 gehiago.

Lehen aldiz, lantegi praktikoak antolatu ziren *Neure eskuz* izenburupean, eta doako ludoteka-zerbitzua ezarri zen helduekin batera doazen txikientzat, aurrez eskaera telefonoz eginda. 2013an, 31 lagun bertaratu ziren batez beste Iraunkortasunaren Ikasgelako jarduera bakoitzera.

Iraunkortasunaren Ikasgelan urtez urte izandako parte-hartzaile kopuruaren bilakaera



2013an, halaber, jarraipena eman zitzaion irakasleak prestatzeko programari, eta hiru gai landu ziren: eskola-baratzeak, ikasgela iraunkorra eta bizi-bus bat ezartzea. Ekimen horretan, guztira, 92 irakaslek parte hartu zuten.

Hedapen digitalari dagokionez, www.museoambientalpamplona.com, museoaren webguneak **25.739 bisita jaso zituen** 2013an; hau da, aurreko urtean baino % 12 gehiago. Facebook orrialdeak 467 jarraitzaile izateari eutsi zion, eta @MuseoEAPamplona-k 385 jarraitzaile izan zituen.

Hiriko bioaniztasuna.

Agenda 21ek hiriko bioaniztasuna mantentzen eta hobetzen dihardu. 2013an, Udalak, Nafarroako Unibertsitatearen bidez, **azterlan** bat egin zuen udal-barrutian dauden **ibaietako** eta beste ur-masa batzuetako **fauna urtarrari** buruz: arrainak, moluskuak, artropodoak eta makroornogabe bentonikoak. Emaizen arabera, Arga ibaiak egoera ekologiko ona edo oso ona du Iruñeko barrutian, hala aldagai fisiko-kimikoei dagokienez, nola adierazle biotikoei dagokienez. Elortz eta Sadar ibaien egoera, ordea, ez da ona. Era berean, azterlanak dio badirela espezie autoktonoei lekua kentzen ari zaizkien espezie exotikoak.

Bestalde, iaz berriz ere kalkulatu zen **hegazti ugaltzaileetan** oinarrituriko bioaniztasun-adierazlea. 51

espezietako 1.951 hegazti atzeman ziren (2009an, aldiz, 47 espezietako 1.607 atzeman ziren), eta espezie arruntenak sorbeltz arrunta, etxe-txolarrea, haitz-usoa eta karnaba izan ziren. Ezkaba, Gaztelugibel eta Magdalena dira bioaniztasunik handieneko eremuak.

Jarraipena eman zitzairen Ezkaba mendiko basoak hobetzeko lanei, **lurzoru publikoko lurzatietan baso autoktonoa leheneratze aldera**. Lan horietan Arantzadiko Parkea Lantegi Eskolako ikasleak ari dira, eta finantziazioa Udaletik, Nafarroako Enplegu Zerbitzutik eta Europako Gizarte Funtsetik etorri da. Ikasleen praktika-aldian, 2012ko irailetik 2013ko apirilera, hektarea bateko pinudi batean jardun zen; zuhaitz erdiak –600 inguru– moztu ziren. Guztira, 75 estereo zur kendu ziren (30 bat tona). Lan horiei lotuta, Ingurumen Heziketarako Museoan dibulgaziozko hitzaldiak egin ziren, bai eta bisita gidatuak ere, herritarrek baso-kudeaketa iraunkorraz eta bioaniztasunaren zainketaz sentsibilizatzeko.

2013an, bioaniztasunari buruzko beste bi jarduketa egin ziren: **aholkularitza-lanak**, Sadar ibaiaren parke berriko aintziran (Arrosadia) eta Taconerako urmaeletan hartu beharre **bioingeniaritza-irtenbideei** buruz.

Iraunkortasun-irizpideak udal-kontratuetan

2013an, jarraipen- eta aholkularitza-eginkizunekin jarraitu zen, udal-kontratu publikoetan iraunkortasun-irizpideak txertatze aldera. Sei kontraturen aholkularitza egin zen: **paper-hornikuntza** eta informatika-ondasun agorgarrien hornikuntza Sociedad de Informática Municipal enpresarentzat (ANIMSA); atezaintza,- harrera- eta jendearendako arreta-kontratua **autobus-geltoki zaharrean**; **Gaztediaren Etxeko** zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratua; **haur-eskolak garbitzeko** kontratua, eta **arropa garbitu eta lisatzeko zerbitzurako laguntza**-kontratua etxex etxeko laguntza-zerbitzurako (EELZ).

Mugikortasun iraunkorra eta bizikletaren sustapena

2013ko azaroaren 6an, **Iruñeko Bizikletaren Behatokia** osatu zen. Foro aholku- eta proposamen-emailea da eta helburu du bizikleta hiriko garraiobide gisara aztertzea hainbat arlotatik begiratuta, hala nola erabiltzaile kopurua, egungo bizikleta-bideen sarea, aparkalekuak edota segurtasuna.

Ingurumen, Herritarren Segurtasuneko, Hiri Kontserbazio eta Proiektuetako alorretako udal-teknikariz eta arduradunez osatua da, bai eta beste erakunde nahiz entitateetako ordezkari ere, hala nola DGT, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua, Iruñeko hiru unibertsitateak, Ermitagaña Txirrindulari Taldea, Garraiobide Osasungarrien Elkarte (AMTS) eta Iruñerriko Txirrindularien Elkarte (CCCP). Lehen bileratik 14 proposamen atera ziren, eta 14ak lantzen hasi ziren.

Gainera, bizikleta garraiobide gisa sustatze aldera, Udalak bere **Nbizi alokairu-zerbitzua** bultzatzen jarraitu zuen. lazkoan, 252 erabiltzaile berri izan ziren. Sistemak, hortaz, bere osoan jada 3.900 erabiltzaile ditu; 2012an baino % 7 gehiago. laz, bestalde, 125 txartel eskatu ziren, aldi baterako akreditatzeko. Zerbitzuak ehun bizikleta eta bost geltoki ditu hiriko hainbat tokitan.

2013an, guztira, 11.884 mailegu egin ziren, hau da, aurreko urtean baino % 3 gutxiago, eta, eguneroko erabilerak, bana beste, 34 izan ziren. Zerbitzuaren hilerik onenak abuztua eta iraila izan ziren, bien artean 3.136 mailegu izan baitziren. Jaitsiera orokorra urteko lehen sei hilabeteetako eguraldi txarrari egotzi zaio, urtariletik ekainera bitarteko jaitsiera % 11 izan baitzen; aldiz, uztailetik abendura, maileguek % 5 egin zuten gora.

2013an, halaber, herritarrendako **Bizieskola** ikastaroak ere antolatu ziren Garraiobide Osasungarrien Elkartearekin. Lehen aldiz 2010ean egin ziren. 2013an, bost ikastaro antolatu ziren; batez beste, 14 lagun bertaratu ziren ikastaroko eta, guztira, 68 parte-hartzaile izan ziren.

Aldi berean, autoaren erabilera garraiobide gisara murrizte aldera, **Autoan elkarrekin** zerbitzua bultzatzen du Udalak. Udalaren webgunearen bidez, herritarrek badute www.compartir.org webera iristerik, non erabiltzaileak erregistratzen ahal diren, bidaiak ibilgailu pribatu batean elkarrekin egiteko pertsonak bilatze aldera. Zerbitzua 2005ean abiarazi zenetik, guztira 1.647 erabiltzaile izan dira; haietariko 200ek 2013an hartu zuten alta, eta horrek guztira % 3 gehiago egiten du 2012an baino. Webguneak, batez beste, 631 bisita jaso zituen hileko.

Osasuna prebenitzea

Elikagaien Ikuskaritza

Elikagaien Ikuskaritzak Iruñeko biztanleek kontsumitzen dituzten elikagaien osasun-kalitatea zaintzea du eginkizun eta, era berean, elikagaiak prestatzeko, biltegitratzeko eta saltzeko lokalen egokitasuna ziurtatzea, bai eta elikagaiak elaboratu eta manipulatzeko prozesuena eta horretan ari diren langileena ere. 2013ko urtarilaren 1ean, 994 ostalaritza-establezimendu zeuden erroldaturik zeuden Iruñean, 1.136 elikadura-establezimendu eta elikagaiekin lotutako bestelako 73 establezimendu edo jarduera egonkor eta ez-egonkor.

lazkoan, 3.748 **ikuskaritza-bisita** egin ziren establezimendu horietara. Horren ondorioz, 657 espediente abiarazi, 105 zehapen jarri eta 512 errekerimendu egin ziren. Bisita horietan Sanferminetan egindakoak sarturik daude. Egun horietan, izan ere, ikuskaritza-zerbitzuek zaintza berezia antolatzen dute; hau da, osasun kontrolerako eta laginak hartzeko bisitak egiten dira establezimendu ez iraunkorretara eta, era berean, jaia egiten den lekuetako establezimenduak ikuskatzen dira. Guztira, osasun-kontrolerako 146 esku-hartze egin ziren eta, haietariko 60tan, gabeziak atzeman ziren.

2009tik 2013ra, ostalaritzan eta elikaduran izandako zehapen-espedienteak

sektoreak	2009	2010	2011	2012	2013
ostalaritza	72	53	79	41	69
elikadura	70	36	62	45	36
Zehapen-espediente guztiak	142	89	141	86	105

Zoonosi Unitatea hiriko etxe-animaliei zein horien parekoei lotutako osasun-aferez arduratzen da, eta Iruñeko Animaliak Hartzeko Zentroan (AHZ) kokaturik dago. Era berean, Taconerako minizooa kudeatzeaz arduratzen da, 2009tik hona.

2013an, 305 zakur eta katu **sartu ziren** Zentroan; 223 eta 82 ale, hurrenez hurren. Gehienak eremu publikoan jasotakoak dira (222), edo jabeek emandakoak (52), eta haien % 46 Animaliak Hartzeko Zentroaren bitartez adoptatu ziren. Udalak animaliak gisa horretan erreskatatzearen alde dihardu; horrela, azken bost urte honetan, 785 animalia-aren adopzioan esku hartu du.

2013an, 139 maskota adoptatu ziren (87 zakur eta 52 katu). **Adopzioen sustapenak**, gainera, bere isla izan zuen eskura dauden animalien gaineko argibidearen hobekuntzan, www.pamplona.es webean, komunikabideen bidezko zabalkundean, eta era berean, instalazioen hobekuntzan eta animaliak hartzeko jarraibideetan. Gainera, dibulgazio-hitzaldiak eta Zentroa ikusteko bisita gidatuak antolatu ziren, animaliak babesteko elkarteekin lankidetzan. 2013an, adopzio-zerbitzuaren dibulgazio-foileto bat argitaratu zen.

AHZn adoptatutako animaliak 2009tik 2013ra

urtea	2009	2010	2011	2012	2013
Zakurrak	102	85	127	139	87
Katuak	37	36	74	51	52
Guztira	139	121	201	190	139

2013an, mantendu egin zen **Animaliak eta Landareak babesteko Elkartearekiko lankidetzahitzarmenak**, AHZk zakurrak eta katuak errazago adoptatu ditzan. Iaz, bestalde, hitzarmena sinatu zen **MirandaOla** zakur-zentroarekin, prestakuntza sustatzeko zakurren hezieraren arloan. Zakurrez eta katuez gainera, Udalak bi bildots, Floridako bi apoarmatu, bi beltxarga, Angorako untxi bat eta hiru ahartetxo ere jaso zituen.

AHZko kontsultategian, **amorruren kontrako 95 txerto** eta beste horrenbeste mikrotxip jarri ziren, bai eta 231 oroitzapen-dosi ere. Zakurrak amorruren kontra txertatzeko eta identifikatzeko kanpaina maiatzaren 20tik 25era egin zen.

Bestalde, Udaltzaingoak zainketa egiten jarraitu zuen aurre egiteko hala pertsonen eta animalien elkarbizitzatik hirian erator daitezkeen arazoei nola arriskutsuak gerta daitezkeen animaliak edukitzetik etor daitezkeenei. 2013an, aurreko urteetan baino **zehapen-espediente** gutxiago abiarazi ziren (112), eta 2012an, berriz, 135.

2013an, **animaliek pertsonei hozka** egindako 34 kasutan esku hartu zen. Animalia horien osasuna aztertu zen eta ezein kasutan ez zen gaixotasun kutsagarriarik atzeman.

Animaliek egindako hozkadak; kasu erregistratuak 2009tik 2013ra

Motak	2009	2010	2011	2012	2013
Zakurrek egindakoak	40	25	23	22	32
Beste animalia batzuek egindakoak	-	-	1	2	2
Guztira	40	25	24	24	34

Zoonosi Unitateak, era berean, 1.448 uso harrapatu zituen; guztira, 19.301 uso harrapatu dira 1997tik hona. Kezka berezi bat zabaldu zen usoek eragindako arazoengatik; hiriko hiru ikastetxe publikotan, batez ere.

Animaliek (zakurrak, usoak, kaleko katuak, etab.) eragindako arazoen ondoriozko kontsulta, kexa eta salaketei erantzun zitzairen, administrazio-bidez, lankidetzaren esku hartuz, edo ukitutakoei aholkularitza nahiz argibidea emanez. 2013ko otsailean, Animaliak Babesteko Etxauriko Zentroarekin aritu zen lankidetzan, Argaren uholdeek ukitutako 17 zakur AHZan hartzeko.

Abenduan, hiriko auzo batean **hainbat zakur pozondu zituzten**. Hori dela eta, Zoonosi Unitateko langileek esku hartu zuten, Udaltzaingoarekin lankidetzan, albaitaritza-kontuetan aholkatzeko eta zer pozoi erabili zen identifikatzeko (egun erabiltzea debekatua dagoen plagizida bat).

Bi albaitari eta bi laguntzaile arduratzen dira **Taconerako minizooaren** osasun-kudeaketaz. 2013an, minizooko oreinei saneamendu-tratamendua egin zitzairen, bai eta parasitoak hiltzeko tratamendua ere. Gainera, minizooaren dotazioak hobetzen eta mantentze-lanak egiten jarraitu zen (ateak, ate txikia, inkubagailuak, etab.), Gizarte Enpleguak eta Soldadurako Lantegi Eskolak lagundurik.

Ingurumen-ingeniaritza

Ingurumen Ingeniaritzako Zerbitzua **ingurumena kutsatzen duten isurpenak kontrolatzeaz** arduratzen da (zaratez, usainez, keez eta gasez) eta, era berean, ofizios ikuskatzen ditu eragozpenak sor ditzaketen emisio eta immisio akustikoak eta ke-isurpenak lokaletan: ostalaritzakoak, saltoki handietakoak, industriakoak, etab. Gainera, parte baten salaketak jasotzeaz gain, Udaltzaingoak aurkezturiko zarata-salaketa guztiak bideratzen ditu. 2013rako, berariazko helburu bat ezarri zen: Ingurumen Ingeniaritzako Zerbitzuaren Txosten Teknikoak egiteko erabilitako dokumentazioaren **kudeaketa-prozesua berrikustea**.

Salaketak eta ikuskapenak, guztira. 2009-2013

Urtea	2009	2010	2011	2012	2013
-------	------	------	------	------	------

Salaketa kopurua	244	191	175	152	192
Ikuskapen kopurua	161	132	172	95	176

Salaketa gehien-gehienak (178) zaratak eraginda jarri ziren. Zehazki, 2013an, kexen % 39,8 **zaratari** zegokion; gehienbat, gaueko ordutegian. Dena den, 2009tik aurrera, % 20,53 murriztu egin ziren ostalaritzako lokalek (tabernak, kafetegiak, taberna bereziak...) eragindako zarata-salaketak, ofiziozko ikuskapen gehiago egiten direlako. Guztira, 68 zehapen jarri ziren.

Kutsadura akustikoak eragindako salaketak

	2009	2010	2011	2012	2013
Tabernak	42	39	42	35	58
Auzokideak	134	70	70	59	71
Beste batzuk	48	62	50	45	49
Kutsadura akustikoak eragindako salaketak	224	171	162	139	178

2013an, **Alde Zaharreko eta Arrotxapeko giro-zarataren neurketa-datuen bilakaera** aztertu zen. Hori lagungarria da trafikoak eta gaueko aisiak eragindako zarata-immisioaren mailaren bilakaera kontrolatzeko eta, era berean, neurri eraginkorrak hartzea ahalbidetzeko. Neurketak San Nikolas kalean, Labrit jaitsieran, Gaztelu plazan eta Antso Abarkaren plazan egin ziren. San Nikolas kalean izan ezik, non zarata-maila mantendu baitzen, gainerakoetan nabarmen jaitsi zen; bereziki, Labrit jaitsieran (% 5,3).

Zerbitzuak, gainera, zaratagatik eta keak eta usainek eragindako kutsaduragatik jarritako salaketak izapidetzen ditu, eta herritarrek egindako salaketei, kontsultei eta informazio-eskariei harrera egiten die.


Ingurumen Osasuna

Iruñeko Udalak, Ingurumen Osasunerako zerbitzuaren bidez, zainketa-lanak egiten ditu hauen inguruan: giza kontsumorako hornidura-sareko **ura**, ibaietako ura, erabilera kolektiborako igerilekuak, haur-eskolak, estetika- eta norberaren garbitasun-jarduerak egiten diren lokalak eta merkataritza-lokal berriak edo titulartasuna aldatu dutenak.


2013an, 575 **estetika-establezimenduei** (ile-apaindegia, UV belzte-zentroak, tatuajeak, piercing, masajeak...) eta 38 **hautzaindegiri** urtean behingo osasun-kontrola egin zitzaion; era berean, hasierako osasun-kontrola egin zitzaion **elikaduraz besteko jarduera duten 744 lokal ireki berriei**. Guztira, 1.357 establezimendu ikuskatu ziren.

Zerbitzuak ofizioz nahiz herritarrek eskaturik dihardu, baina 2013an, berriz ere, ia ikuskapen guztiak ofizioz egin ziren (% 94,7).

2013an egindako ikuskapenak eta hartutako laginak



INSPecciones



MUESTRAS

1.506 **ur-lagin** hartu ziren, analisi kimikoa eta bakteriologikoa egiteko, erroldaturik dauden 753 kontsumo-txorrotetan. Txorrotak honakoetan daude kokaturik: iturri publikoetan, derrigorrezko irakaskuntzako ikastetxeetako patio, jantoki eta sukaldeetan, Udalaren haur eskoletako ikasgela eta sukaldeetan, udal-kiroldegietan, Civivox zentroetan eta Udalaren lan-zentroetan. Horrez gain, 25 lagin hartu ziren Arga, Elortz eta Sadar ibaien sarreran eta irteeran. Erabilera kolektiboko igerilekuei dagokienez, 268 ur-lagin hartu ziren 84 igerilekutan. Era berean, 2013an, 35 ikuskapen egin ziren; bat, irekiera-lizentzia duen haurtzaindegi erroldatu bakoitzeko. Horrez gain, estetika- eta norberaren garbitasunerako jarduerak egiten diren 525 merkataritza-lokal ikuskatu ziren. Guztira, 575 ikuskapen egin ziren, eta horiek 23 espediente eragin zituzten.

Lizentzia berriko lokal-ikuskatuen bilakaera

URTEA	2009	2010	2011	2012	2013
Ikuskatutako lokal kopurua	372	416	506	432	493
Gabeziak dituzten lokal-kopurua	96	72	79	91	70
1. ikuskapen-bisitan zuzen ez zeuden lokalen %	25,8	17,3	15,6	25,8	14,2

Udal Laborategia

Udal Laborategia arduratzen da elikagaiak eta urak osasunaren aldetik kontrolatzeko beharrezkoak diren

analisi kimikoak eta mikrobiologikoak egiteaz, Elikagaien eta Osasun Ingurumenaren Ikuskaritzak hartutako laginak abiapuntu hartuta.

Elikagaiak kontrolatzeari dagokionez, elikagaien egoera egiaztatzen da elikadura- eta ostalaritza-establezimenduetan zein eskola-jantokietan eta makina saltzaileetan. Elikagaiak analizatzeko jarduera honetan, guztira 536 lagin hartu ziren eta 1.975 saiakuntza kimiko eta 598 saiakuntza mikrobiologiko egin ziren.

Elikagaiak analizatzeko 2013ko jarduera-laburpena

_____ Lagin kopurua Saiakuntza kimikoak Saiakuntza mikrobiologikoak Guztira

Elikagai mota

Esnekiak	45	234	62	296
Haragikiak	44	482	40	522
Arrainkiak	43	207	40	247
Olioak	17	173	0	173
Gozotegiak eta izozkitegiak	24	120	48	168
Plater prestatuak	118	192	236	428
Beste batzuk	245	567	172	739
Salaketak	0	0	0	0
Guztira	536	1975	598	2573

Ingurumena (ura) kontrolatzeko jarduera-laburpena. 2013. urtea

Saiakuntzak Saiakuntzak
 Laginak _____ Saiakuntzak, guztira
 Kimikoak Mikrobiologikoak

Sareko ura	1581	15954	4767	20721
Igerilekuetako ura	270	2400	1302	3702
Ibaietako ura	24	264	72	336
Salaketak	9	34	29	63
Guztira	1884	18652	6170	24822

Laborategiak, halaber, erantzun egiten die herritarrek ingurumenaz eta elikagaiez plazarazten dituzten kontsultei. 2013an, 15 galdera izan ziren. Azkenik, oso gutxi izan arren, udal-zerbitzu honek hirugarrenek eskaturik hartu eta azter ditzake laginak. 2013an, era horretako 19 izan ziren, herritar eta enpresentzat, eta 226, erakunde ofizialentzat.

Analisi-jardueren laburpena 2013

Jatorria	Saiakuntzak		Saiakuntzak	
	Lagin kopurua		Saiakuntzak, guztira	
		Kimikoak	Mikrobiologikoak	
Ingurumen- ikuskaritza	1884	18652	6170	24822
Elikadura- ikuskaritza	536	1964	603	2567
Enpresak eta Organismo ofizialak	245	524	6	530
Analisi-kontrola	533	1267	447	1714
GUZTIRA	3195	22407	7226	29633

Osasun-zerbitzuak

Epidemiologia Zerbitzua

Zerbitzu hau zaintza eta analisi epidemiologikoaz arduratzen da, bai eta osasuna sustatzeko eta bultzatzeko programak kudeatzeaz eta osasun publikoan ikerkuntza egiteaz ere. Elikadura-azturak hobetze aldera eta jarduera fisikoa aldiari behin egitea bultzatze aldera, 2013an *Gosaldu egunero* eta *Helduendako ibilketa nordikoa* programak mantendu ziren.

Gosaldu egunero 2008-2009ko ikasturtean abiatu zen, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleei gosari osasungarri eta orekatuak egiten irakasteko, dietistek-nutrizionistek ikastetxean bertan zuzendutako saioetan. 2013an, txanda Víctor Pradera IPan hasita, hiri guztian maila horretan matrikulatutako 2.243 ikasleetatik 2.164k parte hartu zuten, eta 40 ikastetxek hirian dauden 41en artetik, 23 ikastetxe publikok eta 17 itunduk. Ikastetxe guztien artetik, 9tan euskaraz egin zen (395 ikasle). Programaren inkesten arabera, 2012-2013ko ikasturteko ikasle parte-hartzaileen % 96,9k egunero gosaltzen du.

Zerbitzu horren barruan, 2013an, **Nafarroako Dietista-nutrizionisten Elkargo Ofizialarekiko lankidetzahitzarmena** berritu zen eta, era berean, Udalaren gainerakoari arlo horri buruzko aholkularitza eman zitzaion; adibidez, *Zure bokata motxilan* programa sei ikastetxetan abiarazteko.

Aurreko urteetan bezala, jarduera fisikoa sustatze aldera, **helduendako ibilketa nordikoetan hasteko** saioak egin ziren, larunbat goizeta

